**GAIA:** **UR HARTUNE ESKAERA AIA UDALERRIKO ERAIKIN BATERAKO**

**ESPEDIENTE ZK.:** **2010H7250016**

**TXOSTEN ZK.:** **0451/2015**

Zarautzen, 2015eko ekainaren 8an.

Udaletxe honetan izenburuan aipatzen den espedientea izapidetzen ari da. Elisabeth Garrastazu andreak eskaera egin zion Zarauzko Udaletxeari ur-hartunea baimentzeko Aiako Udalerrian dagoen higiezin bateraino.

2010eko martxoaren 9ko Alkatetzako Dekretu bitartez honako hau erabaki zen:

> *Elisabet Garrastazu andreari Talaimendiko ur biltegitik Aiako den Amezti baserrira ur hartune baimena ematea, jabetza-eskubidea izan ezik eta hirugarrengoak kaltetu gabe.*

Baimenari baldintza zehatz batzuk ezarri zitzaizkion. Ur hartunea ez zen burutu une horretan, eta 2015eko apirilaren 27an, interesatuak berretsi egin zuen eskaera, orain hasi dituelako eraikina altxatzeko lanak.

Zerbitzu Ekonomikoek kontsulta bideratu eta txosten juridikoa eskatu dute argitzeko ea ze tratamendu eman behar zaien 2010 urtean ordaindutako tasei, orain akordio berria hartu aurretik.

Espedientea aztertu egin da, eta antzeman da inguruabar gehiago daudela kontuan hartu beharrekoak, eta hausnarketa zabalagoa egin behar dela kasu honetan.

## LIZENTZIAREN IRAUNGIPENARI BURUZ

Lizentziak orokorrean, pertsona baten eskubidea aitortzeko ekintza administratibo bat denez gero, ez du iraungitzen denbora pasa izanagatik bakarrik. Lizentziaren iraungipena aitortzeko, berariazko akordio bat hartu behar da. Kasu honetan ez da egin, eta Errenta eta Exakzioak egindako eskaerari erantzuteko, adierazi beharko litzateke likidatu behar dela gaur egun dakiokeen kopurua, eta 2010. urtean ordaindutakoarekin desberdintasuna kitatu.

Kasu honetan, ordea, eta gero adieraziko diren inguruabarrei buruzko berriak jaso ondoren, espedientea berrikusi izan da eta antzeman da 2010 urtean egindako ur-hartune eskaera eraikin zehatz baterako zela (Amezti baserria), eta orain, ordea, beste eraikin baterako egin dela eskaera.

Beraz, uler daiteke 2010ean egindako eskaera eta 2015ean egindakoa, ez direla berdinak, eraikin ezberdinetarako baitira.

## EMANDAKO LIZENTZIAREN INGURUABARREN ALDAKETA

Beraz, kontuan hartu behar da 2010 urtean emandako baimena Aiako Udalerrian dagoen "Amesti" baserriaren berriztapena egiteko zela. Gaur egun egin den eskaera, altxatzen ari diren eraikin berri baterako da, itxuraz ez duena bat egiten lehen zegoen baserriarekin.

Zarauzko Udaletxean elkarte ezberdinek aurkeztutako idatziak jaso dira. Idatzi horietan galdetzen dute zehatz-mehatz azken eskaerarekin lotura duen eraikinari buruzko zilegitasuna. Zalantzak saihesteko, Zarauzko udalak idatzia zuzendu dio Aiako Udaletxeari, ezagutzeko zein den altxatzen ari diren eraikinaren egoera administratiboa, hain zuzen ere jakiteko ea baduen beharrezko lizentzia.

Ur-hartuneak emateko, ZARAUZKO UDAL MUGAPEAN URAREN ZIKLO OSOAREN KUDEAKETA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZAk adierazitako baldintzak bete behar dira. Ordenantzak honela dio bere 17 artikuluan:

> *Zerbitzuak ur-hornidura eta isurkien hustuketa ukatu ahal izango du, harpidetza-polizan izena emateari ezezkoa emanda, ondoko kasuetan:*
> *(...)*
> *2.- Eskatzailearen barne-instalazio partikularrak eta/edo orokorrak, bai ur edangarria hornitzekoak bai eta hondakin-urak hustekoak ere, Zerbitzuaren iritziz, instalazio-mota horietarako legezko xedapenek oro har ezartzen dituzten aginduak (...) betetzen ez dituenean.*

Zentzu horretan ere, ekainaren 30eko Lurzoru eta Hirigintzako 2/2006 Legearen 214 artikulua:

> *1.– Enpresa hornitzaileek –energia elektrikoa, ura, saneamendua, gasa eta telefonia hornitzekoek–, kasuan kasuko zerbitzuak behin-behinekoz kontratatzeko, hirigintzako lizentzia egiaztatzea eskatuko dute.*
> *(...)*
> *2.– Aurreko paragrafoan adierazitako enpresek honako agiri hauek eskatuko dituzte hornidurak eta zerbitzuak behin betiko kontratatzeko:*
> *(...)*
> *b) Lehen aldiz erabiltzeko udal-lizentzia, beti.*

Jurisprudentziak ere hainbat kasutan berretsi egin du administrazioak ukatu egin behar duela eskatutako baimena baldin eta antzeman izango balu lizentzia hura emateko beharrezko baldintza guztiak ez direla betetzen.

## LIZENTZIA EMATEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Adierazitakoaren ondorioz, nahiz eta ur-hartunea Zarauzko Udalerrian ez dagoen eraikin batentzat eskatzen den, Udaletxeak eskatu ahal izango dio eskatzaileari beharrezko dokumentazioa. Kasu honetan, eraikina lur ez urbanizagarrian dago, eta lur mota horri dagokion babesa betetzeaz gain, Lurralde Plan Sektorial hauek agindutakoak bete behar

ditu: Kostaldea Babesteko eta Antolatzekoa, alde batetik, eta Nekazaritza eta Basozaintzakoa bestetik.

Aiako Udaletxeari dagokio bermatzea lurralde planteamendua eta hirigintza arauak betetzen direla. Horiek bete direla ziurtatzeko, Zarauzko Udalak idatzia igorri dio Aiako Udaletxeari eraikin horri buruzko informazioa jasotzeko. Txosten hau idatzi izan den egunerarte, ez da erantzunik jaso.

Hori dela eta, honako ekintzak burutzea proposatzen da:

- 2010 urtean emandako lizentziaren iraungipena aitortzea. Hori egin aurretik, interesatuari audientzia eman beharko zaio, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena) 92. artikuluak xedatutakoari jarraituz.

- 2015 urtean egindako eskaerari erantzun aurretik, interesatuari eskatzea frogatu dezala betetzen dituela ur-hartunea eskuratzeko baldintzak, hain zuzen ere, Aiako Udaletxeak emandako baimena eraikitzeko orain altxatzen ari diren etxea.

Xabier Aranburu Soldevilla
Udal Zerbitzu Teknikoetako AOT

**ASUNTO:** **SOLICITUD DE ACOMETIDA DE AGUA PARA UN EDIFICIO DEL MUNICIPIO DE AIA**

**Nº EXPEDIENTE:** **2010H7250016**

**Nº INFORME:** **0451/2015**

Zarautz, 8 de junio de 2015

Este Ayuntamiento está tramitando el expediente señalado en el epígrafe. Dª Elisabeth Garrastazu solicitó al Ayuntamiento de Zarautz autorización para la acometida de agua hasta un inmueble situado en el T.M. de Aia.

Mediante Decreto de Alcaldía del 9 de marzo de 2010 se resolvió lo siguiente:

> *"Autorizar a Dª Elisabet Garrastazu la acometida de agua desde el Depósito de Talaimendi al Caserío Amezti del T.M. de Aia, salvo el derecho de propiedad y sin perjuicio de terceros."*

La autorización fue concedida bajo una serie de condiciones específicas. Sin embargo, en aquel momento no se ejecutó la acometida, y el 27 de abril de 2015 la interesada ha ratificado su solicitud coincidiendo con el comienzo de las obras de construcción de la edificación.

Los Servicios Económicos han tramitado una consulta solicitando un informe jurídico para que, previamente a la adopción del nuevo acuerdo, se aclare el tratamiento que se les debe dar a las tasas abonadas en el año 2010.

Tras el análisis del expediente, en este determinado caso se ha detectado la existencia de nuevas circunstancias que se deben tener en cuenta y que merecen una reflexión mas detenida.

## SOBRE LA CADUCIDAD DE LA LICENCIA

La licencia en general es un acto administrativo de reconocimiento del derecho de una persona, por lo que su caducidad no se produce por el simple paso del tiempo. La declaración de caducidad de una licencia exige la adopción de un acuerdo expreso que en este caso no se ha realizado. Así pues, en respuesta a la solicitud realizada por Rentas y Exacciones, se debe señalar que la liquidación debería ser por el importe que le correspondería actualmente liquidando la diferencia pagada en el año 2010.

No obstante, en este caso, y tras tener nuevas informaciones sobre las circunstancias que se van a señalar a continuación, se ha vuelto a revisar el expediente constatando que la solicitud presentada en 2010 estaba destinada para un edificio concreto (caserío Amezti) y que por contra la actual solicitud es para otro edificio diferente.

Por consiguiente se puede entender que la solicitud realizada en 2010 y la realizada en 2015 son diferentes, ya que están destinadas a edificios diferentes.

## MODIFICACIÓN DE LAS CIRCUNSTANCIAS DE LA LICENCIA CONCEDIDA

Se debe tener en cuenta que la licencia concedida en 2010 estaba destinada para la reforma del caserío Amezti situado en el T.M. de Aia. Sin embargo la actual solicitud es para un nuevo edificio en construcción que al parecer no se corresponde con el antiguo caserío.

En el Ayuntamiento de Zarautz se han recibido diferentes escritos de varias asociaciones realizando consultas sobre la legalidad del edificio objeto de la última solicitud. Para evitar dudas, el Ayuntamiento de Zarautz ha dirigido un escrito al Ayuntamiento de Aia preguntando sobre la situación administrativa del edificio que se encuentra en construcción, precisamente para conocer si dispone de la licencia necesaria.

Para la concesión de acometidas se deben cumplir las condiciones señaladas en la ORDENANZA MUNICIPAL REGULADORA DE LA GESTION DEL CICLO INTEGRAL DEL AGUA EN EL TERMINO MUNICIPAL DE ZARAUTZ. El artículo 17 de la ordenanza dispone lo siguiente:

> *El Servicio podrá negar el suministro de agua y la evacuación de vertidos, mediante la negativa a suscribirse las Pólizas de Abono, en los casos siguientes:*
> *(...)*
> *2.- En el caso de que la instalación interior particular y/o general del peticionario, tanto para el suministro de agua potable como para la evacuación de aguas residuales, no cumpla a juicio del Servicio las prescripciones que con carácter general establecen las disposiciones legales para estos tipos de instalaciones (...).*

En ese sentido el artículo 214 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo establece que:

> *1.- Las empresas suministradoras de servicios de energía eléctrica, agua, saneamiento, gas y telefonía exigirán, para la contratación provisional de los respectivos servicios, la acreditación de la licencia urbanística.*
> *(...)*
> *2.- Las empresas citadas en el apartado anterior exigirán, para la contratación definitiva de los suministros o servicios respectivos, la siguiente documentación:*
> *(...)*
> *b) Licencia municipal de primera utilización en todo caso.*

La jurisprudencia ha ratificado en varias ocasiones la negativa de la administración a conceder una autorización solicitada, en el caso de que se detectara el incumplimiento de las prescripciones necesarias para la concesión de la licencia.

## CONDICIONES DE OBLIGADO CUMPLIMIENTO PARA LA CONCESION DE LA LICENCIA

Como consecuencia de lo señalado, a pesar de que la solicitud de acometida se ha realizado para un edificio que se encuentra fuera del municipio de Zarautz, el Ayuntamiento

podrá solicitar la documentación necesaria al solicitante. En este caso el edificio se encuentra en suelo no urbanizable, por lo que además del cumplimiento de la protección que corresponde a dicho tipo de suelo, también se debe dar cumplimiento a lo dispuesto en los siguientes Planes Territoriales Sectoriales: por un lado el PTS de Protección y Ordenación del Litoral y por otro el PTS Agroforestal.

Garantizar el cumplimiento del planeamiento territorial y de la normativa urbanística corresponde al Ayuntamiento de Aia. Para comprobar su cumplimiento el Ayuntamiento de Zarautz ha remitido un escrito al Ayuntamiento de Aia al objeto de recabar información sobre dicho edificio. A fecha de redacción de este informe no se ha recibido respuesta alguna.

Por todo ello, se propone llevar a cabo las siguientes actuaciones:

- Declaración de caducidad de la licencia concedida el año 2010. Previamente se debe dar audiencia a la interesada en virtud de lo dispuesto en el artículo 92 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

- Antes de contestar a la solicitud realizada en el año 2015, se debe requerir a la interesada que demuestre el cumplimiento de las prescripciones para la obtención de la acometida, y precisamente la licencia concedida por el Ayuntamiento de Aia para la construcción del edificio que se está levantando.

Xabier Aranburu Soldevilla
TAG de Servicios Técnicos Municipales